



Harrobia bermatuta dute, haurrentzako jardueretan parte hartzea handia baita.

Lehia eta jolasa, ohikoari eutsi dion egitarauaren osagai nagusiak

Hirian arreta handia bereganatzen duten beste jarduera batzuekin bat egin ohi dute Loiolako Erriberako jaiek. Auzotarrei, ordea, ez zaie gehiegi axola handik kanpo gertatzen dena, bertan eta elkarrekin festez gozatzea baita euren nahia.

✂ Maitane Aldanondo Gabilondo
📷 Olatz Balda Sagarzazu

Zinemaldiarekin edota Porrontxoekin lotu ohi dute donostiar askok iraileko hirugarren aste-burua. Loiolako Erriberan, aldiz, egutegian gorritz markatuta izateko beste arrazoi bat dute: auzoko jaiak. Gaurtik igandera bitartean, elkarrekin gozatu eta saretzeko aukera izango dute etxe ondotik urrundu beharrik gabe.

Musika Eskolako kideek emango

dute pregoia eta horrekin ekingo diote festei. Ez dira azken urteetako egitarauetatik ia aldenduko, osagai gehienei eutsi baitiete; batetik, funtzionatzen duelako, eta bestetik, aldaketa askorako indarrak ez dutelako. «Dagoe-nak ondo funtzionatzen du eta erraza da, antolatuta dugu. Gauza berriak egiteko azpiegiturak behar ditugu eta gaudenok nahikoa lan daukagu

duguna mantentzen», aitortu du Unai Urkiola auzoko bizilagunak. Gaztetxo batzuk sartu dira jai batzordera, baina belaunaldi erreleboa gauzatzeko jendea falta zaie: «Ea gazteak arrimatzen zaizkigun. Ez da erraza, gure auzoan ez dago gazte girorik».

Zailtasunak zailtasun, adin guztiei begirako egitaraua atondu dute, beste behin. Aipagarria da txapelketa kopurua: mozzorroak, olinpiadak, xakea, musa, patata tortilla eta pintxoak. Guztietan erantzuna «oso ona» da eta parte hartzera animatzen dira auzotarrak, baina pintxo eta patata tortilla lehiaketak dira arrakastatsuenak; azken horretan, adibidez, 60-70 tortilla aurkeztu ohi dituzte. Loiolako Erriberan lehia zaleak edo lehiakorrak ote diren galdetuta, barre egin du Urkiolak. «Ez dakit hori den edo jendeari eserita diren jarduerak gustatzen zaizkion».

Piknik herrikoiairen aurtengo gaia Zinemaldia da. Lehen aldiz, mozzorrorik onenek saria eramango dute

Oso parte hartzailea den beste ekimenetako bat Giuseppe Verdi plazan gaur egingo duten piknik afaria da. ETO DJ-ak girotua, Zazpi-garren Artearen glamourraz betetako otordua izango da, Zinemaldia aukeratu baitute gai gisa. Eta hori gutxi balitz, lehenengoz, mozzorro onenak sarituko dituzte.

Arantzatxoa gazteekin badute, haurrentzat prestatutako egitasmoetan parte hartzea beti da ona. «Olinpiadetan 120 umetik gora aritzen dira. Oinarri ona dugu hor», aipatu du Urkiolak. Gainerakoan ere «auzoa beti beteta dago eta uneoro zerbait dago egiteko».

Auzotarren inplikazioaren beste adibide bat da Riber Rockers elektrotzaranga. Ikasbide Ikastolako guraso talde batek osatua, iaz egin zuen jaietan debuta, eta aurten errepikatu-ko dute jaietan igande eguerdia kalez kale girotuta. ●

OSTIRALA 19

17:00-18:45 · Bartzelona, 2
Puzgarriak.

19:00 · Bartzelona, 34
Jaien hasierako pregoia,
eszenatokian.

19:10 · Auzoan zehar
Zezentxoak haurrentzat eta kalejira auzoko
kaleetan barrena, buruhandi eta erraldoiekin.

21:00 · Giuseppe Verdi plaza
Piknik afaria ETO DJ-arekin. Gaia:
Zinemaldia. Saria: afaria eta opariak
mozorro onenentzat.

22:00 · Maria Zambrano plaza
Radio Rebelderen musika emanaldia.

LARUNBATA 20

09:15 · Auzoan barrena
Udaleko Txistulari Bandaren diana.

11:00-13:00 · Giuseppe Verdi plaza
12 urte artekoentzat jolasak, puzgarriak
eta karts-ak.

12:00 · Maria Zambrano plaza
Muxikoak herri dantza taldea.

12:30 · Auzoan barrena
Lau katu txaranga.

13:00 · Giuseppe Verdi plaza
Zezentxoak.

16:30 · Bartzelona, 34
VIII. Xake Txapelketa 12 eta 16 urtez azpiko
kategoriai.

17:00 · Maria Zambrano plaza
XIV. Mus Txapelketa.

18:00 · Lafitte plaza
Zirika Zirkus taldearen *Danz Jolas Jaia* haur
antzerkia

18:30 · CDO Riberas
IV. Gazte Olinpiadak, 12 urtez gorako
gazteentzat.



19:30 · Bartzelona, 34
Zumba tailerra, agertokian.

20:30 · Bartzelona, 34
Parrillada herrikoia, eszenatokian
parean.

20:30-01:30 · Bartzelona, 34
Berbena Txingudi DeeJays DJ-ekin,
agertokian.

23:00 · Bartzelona, 30-32 eta 37-39
Zezensuzkoa.

IGANDEA 21

11:00-12:30 · Maria Zambrano plaza
Gurpil gainean gozatu.

12:00 · Iesu parrokia
Iesu abesbatza

12:15 · Alkain plaza
XIII. Patata Tortilla Lehiaketa.

12:30 · Auzoan barrena
Riber Rockers elektrotxaranga.

13:00 · Alkain plaza
VII Riberas Chef, 7 eta 16 urte arteko haur
eta gazteentzako pintxo lehiaketa. Izen
ematea 12:30etik 13:00etara.

14:30 · Alkain plaza
Paella jatea.

16:00-18:00 · Lafitte plaza
Puzgarriak.

17:00 · Santiago plaza
Apar festa.

18:30 · Bartzelona, 34
Sari banaketa.

19:00 · Maria Zambrano plaza
- Txokolate jana.

- Roberto Urrutia & Amanecer Ranchero
mariatxien emanaldia.